

Frantzisko Xabier Munibe

GABON SARIAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Teatro zaarra. Gabonetako ikuskizuna. gabon-sariak. El borracho burlado*, Pedro Barrutia, Sor Luisa, Xabier Munibe (Gabriel Arestiren edizioa). Auspoa, 1965

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=374>

SOR LUISA

GABON-SARIAK

EDO

AURTENGO GABONETAN AZKOITIKO
ELEIZA NAGUSIAN KANTATUKO DIRAN
GABON-KANTAK EDO OTSALDIAK

Puer natos est nobis,
venite adoremus.

AZKOITIN MISERIKORDIAN
MDCCLXII

Lenengo argitaraldia: «Gavon-sariac edo aurtengo gavonetan Azcoytico Eleiza Nagusian cantatuco ciran Gavon cantac edo otsaldiak. Puer natus est nobis, Venite adoremus. Azcoitia, 1762».

Bigarren argitaraldia: «Euskal-Erria» errebista, XX, 1889.

Irugarren argitaraldia: «Egan», 1956, 5-6.

Laugarren argitaraldia: Auspoa Liburutegia, 48, 1965.

Azkoitiko Misericordiako Ama Birjiña Soledadekoari

Andrea:

Zure mende gozoan bizitzeko zoriona degunok, zure mendean ta egapean ipiñi ere bear ditugu gure gauza guztiak. Argatik gaur argierazotzen degun papeltxo au, zure mendean ipintzen degu, ta ala artu ere bear dezu zuk; bada batetik gurea da, ta bestetik guk, gure onginaierak egiten dizkuen ongiteakgatik, eman nai diegun sari bat da: ta abek zure eskuetatik bialtzen dizkuen-azkero beren ongiteak ta ondasunak, esku orietatik biurtu ere nai diegu sari au. Ar zazu, bada, gure Ama gozoa, nai oi dezun ongiroarekiñ papeltxo au; eman egiozu zure grazia, ta adierazo egiezu gure ongiñ guziai gure borondate ona, ta eziñ beste moduz paga gintzakeala, ezpada arekin, ta zuri otoitzeak zure Seme Jaunagandik erdietsi dezazula aientzat guztientzat osasuna, bakea, ondasunak mundu onetan, zure umezurtxoetan gasta ditzaten, ta bestean sekulako bizitza; ala eskatzen dizu, Andrea, zure oñetan umilki auspez etziñik, Misericordiako etxeak.

Luis Miserikordiakoak ongiñ guziaz gabon, urte on ta berri on

Nere biotzeko ongixko maiteak: Igaroko urtean gabon-saria pranko eman badidazue ere, orra aurren, aurrea artuta, nun neuk ematen dizuedan: Ta nolako, ala ere? Zuek geienez gabon egiteko aza-buru bat, edo bakallao puska batekiñ askidatu ta konplitu dezue nerekiñ; baña nik zuentzat berariaz inprimierazo ditudan kantatxo edo otsaldi eder auekin erregalatzzen zaituet.

Orañ zuek esango dezue zer apetek edo eroaldik eman didan onetarako. Ara bada, adi ezazue.

Igazko gabonetan ekusi nituan gure etxean makina bat gabon-kanta inprimitu: batzuek Bilbaokoak zirala, besteak Madrilgoak, Karizkoak, ta eztaikit nun añ urrutietako batzuek; ta adios nun berealaxe gogok eman zidan: Zer! Beste iñun diran eleizak inprimierazotzen ditue, ateratzen dituen kantak (azkenik Bilbaoko San Praxkuko Praille gajoetaraño), ta gure Azkoitiko eleiza ederrean kantatzen diranak illunpean

gelditu bear debe? Nundik nora? Ez debe beste erde-
ra mordollozko abek ainbat merezi? Ez bada, Jainkoak
nai badeu; ta datorren urtean, bizi banaiz, soñean
daramadan gona au salduko badet ere, inprimatu
bearko debe deamutxoetan. Orra bada, esan da egiñ,
nun inprimierazo ditudan aurten gure Azkoitiko musi-
ka aingeruzkoak kantatuko dituan iru kanta-aldiak.

Jakiñ ere naiko dezue, norzaz baliatu naizan
koplak ta beren soñua ateratzeko, ta jakiñ-gura geie-
gitxo bada ere, ez dizuet ezer ixildu nai. Koplarik geie-
nak nere burukoak dira; ta bost gaubela ta izerdi gozo
kosta bazaitzit ere, ondo enpleatutzat ematen ditud
diranak. Egia da (ez diot iñori ezer kendu nai), Martin
beltz gizajoak, mesederik asko egiñik, lagun eginda
batez ere, segidilla, ta arako *aria* edo *kopra andi*
aetan, bada sekula alakorik nola ekusi ere ez neban,
eziñ asmatu neban; ta ark berriz, nola iñunziak egiten
ere dakian, asko daki, ta gizon jakintsu bat da. Soñua
edo koplea ez da nerea; ez dakit orrenbeste; baña
Probintzian diran maixurik pamatuena eragin diet.
Melon antxiñako organista buapo ark, ta Lorentzo
dantxariak, biak alkar arturik, atera debe.

Ala ere, ez dide kantatzen bentajarik eramango,
ez batek eta ez besteak; ta ala, ikasi nai deban guztia,

ez dauka nigana etortzea baño. ta nik berealaxe erakutsiko diot; bada eztarri garbi garbia ez badet ere, belarriak galantak ditut. Onenbesterekiñ, agur, bada kanpaeak badarauntza ia, gabon egiteko, gure deiez.

LENENGO OTSALDIA

Tonadillea

Sekulako ikaraturik
Nago ikusi dedanaz;
Ez bait du iñork sinistuko
Bakarrik nere esanaz.

*Bada ni ere
Neure ikusirik,
Egon naiz eziñ
Sinisturik.*

Gure erriko sartzaieran
Dagoan abel-etxe ura
Aiñ dago argia ta ederra,
Zer dirudi zerua.

Baña au ez da ezer ere
Beste gauzeen aldean.
Ez da ainbeste mirari
Ekusi iñoz lurrean.

Bada ni ere...

Aditu nai dituztenak
Jar bitez nere aldean:
Esango ditut diranak!
Segidillatxo auetan.
Baña utzi bulla
Alde batera;
Txit, txit, ia noa
Abiatzera.

Segidillak

Aurtxo zoragarri bat,
Or portalean,
Otzak kil, kil, kil, datza
Lasto gañean.

Ai, aur ederra!

Ai, aur guria!

Ai, aur gozoa!

Ai, aur eztia!

Otzak kil, kil, kil, datza.
Lasto gañean.
Belen guztian

Eztute iñun aurkitu
Ostaturikan.

Ai, aur ederra!...

Asto idi batzuek,
Etziñik auspaz,
Zerbait berotzen dute
Beren arnasaz.

Ai, aur ederra!...

Errukiago
Dira abereak berak
Gizonak baño.

Ai, aur ederra!...

Txit emakume eder bat
Alboan jarrita,
Zoro biurturik dago
Ari begira.

Ai, aur ederra!...

Bai, biak ere
Ederrean alkarren
Antza badebe.

Ai, aur ederra!...

Andre eder au aur onen
Ama andre izanik,
Jaio zanean bezela
Dago, orregatik.

Ai, aur ederra!...

Zer mirarial
Ama izanik, dontzella
Bait da garbia.

Ai, aur ederra!...

Aur eder onen aita
Ez da gizona;
Da espiritu garbi bat,
Da Jaungoikua.

Ai, aur ederra!...

Argatik bada,
Mirari aiñ andi au
Gertatu bait da.

Ai, aur ederra!...

Maiz ekusi dezute
Kristal garbian,
Nola sartu ta erten
Oi dan argia,

Ai, aur ederra!...

Ausirik gabe,
Ta loirikan batere
Utzirik gabe.

Ai, aur ederra!...

Gisa artan Andre onen
Sabel garbian
Sartu ta erten izan da
Jainkoaren itza.

Ai, aur ederra!...

Aren gisara
Mantxa gabe ta osorik
Gelditzen dala.

Ai, aur ederra!...

Aguretxo bat ere
An dago aurtxoaz.
Eziñ dauka negarra
Pozaren pozaz.

Ai, aur ederra!...

Iñoiz malkoak
Oi dira farra baño
Gozoagoak.

Ai, aur ederra!...

Jaunak esleiturik
Bere ordekotzat,
Aurrak aita ez badu ere,
Dauka artakotzat.

Ai, aur ederra!...

Zorionekoa
Izatea alako aurraren
Aita ordekoa.

Ai, aur ederra!...

Beste gizakumerik
Aurkitzen ez da.
Aurtxo onen konpañia
Eztitsu onetan.

Ai, aur ederra!...

Mundu zoroa!
Ez du sekula jakiñ
Zer dan gauza ona.

Ai, aur ederra!...

Bañan ez zaio palta.
Ez, konpañia,

Bada berekiñ dauka
Zeru guzia.

Ai, aur ederra!...

Argatik naski
Dabil mundua igasi
Toki artatik.

Ai, aur ederra!...

Aingeruak kantatzen
Diote aurrari:
Gloria zeruetan
Jaungoikoari,

Ai, aur ederra!...

Eta bakea
Gizon on guzientzat
Berriz lurrean.

Ai, aur ederra!...

Nai dutenak etorri,
Betoz laxterka,
Musika zeruko au
Aditutzeroa,

Ai, aur ederra!...

Ta aekiñ batera

Gure borondate ona
Erakustera.

Ai, aur ederra!...

Goazen, ta bere oñetan
Umilki etziñik,
Alabatuko degu
Biotz guzitik.

Ai, aur ederra!...

Modu onetan
Ez digu, ez, ukatuko,
Deus ere ezertan.

Ai, aur ederra!...

Eska zaiogun bada
Lendabizian,
Ez gaitzala, arren, utzi,
Gere bizian.

Ai, aur ederra!...

Gurekin dela,
Ez gera ezeren bildur,
Naiz dena dela.

Ai, aur ederra!...

Orain aur maite onekiñ
Ongi bagera,
Gero eramango gaitu,
Beraz batera,
 Ai, aur ederra!...
Bere Aitagana,
Sekulako bizitza
Ta gloriara.
 Ala biz.

BIGARREN OTSALDIA

Aria

Karkiadearen eta egiazko amorioaren auan

Au egun zoratzekoa!
Zer poz andia!
Zer atsegiña!
Aiñ da poz nere gogoan,
Zein da ez dakit zer egiñ.

Errezitatua

Jaungoiko andiaren
Esku indartsuak sortutako guziak,
Eguzki eder, illargi, ta izar argiak.
Zeruak, lurra, ta itxaso zabalak,
Atozte, atozte nigana, zeranak.
Kanta ditzagun guzien artean
Jaungoikoaren gloriak gaurko gabeen.
Mendi portitzak, aariak bezela, dantza:

Munotxoak salto, bildotstxoen gisara;
Ibar ta madura lau, baso ta txara.
Atozte, atozte nigana, zeranak,
Kanta dezagun guzion artean
Jaungoikoaren gloria, gaurko gabean.
Arbola orritsu berde, trebola fiñak,
Larrosa, klabeliña eta jazmiñak,
Ibai zabal, osiñez betetakoak,
Erreka berritxutxo itz jarioak,
Itz batean, zerua bere argiakiñ,
Lurra, itxasoaz ta ur guziakiñ;
Ibaiak, arbolak, mendiak eta izarrak,
Atozte, atozte nigana, zeranak,
Kanta dezagun guzion artean
Jaungoikoaren gloria, gaurko gabean.

Ariatxo

Eguzki andia,
Izar argia,
Lastotan dautzan
Aurtxo orrek
Sortua zera,

Ta orren mendera
Bizi artean
Zaude zuek.

Ur aserrea,
Mendi eskerkea,
Lastotan dautzan
Aurtxo onek,
Ain geldirikan
Zuen tokian
Leku batean
Zauzka zuek.

Au ala izanik,
Aur biurturik
Gaurko gabean
Dadukat nik,
Gizon tristea,
Penaz betea,
Libratu dezan
Pekatutik.

Nik ekarririk
Gizon egiñik,

Nik gaur bear det

Kantatu

Bere etorrera

Gizon artera;

Eta ala zuek

Lagundu.

IRUGARREN OTSALDIA

ARTZAI KANTA

Adirakaia

Guziak dakite nola aingeruak gaztigatu zieten Belen inguruko artzaiai munduaren Salbatzallea jaio zala estrabi batean.

Ebanjelioko pasarte onetatik ta beste toki askotatik, nun J.K. gureak bere burua artzaitzat izendatzen duen, artu izan da otsaldi edo kanta onen irudidea; zeñean asmatzen dan, Belen inguruko artzaiak, jakiñik Artzai berri bat eldu dala abel-etxera, alkar arturik, diazela ongi-etorria ematera. Onetarako, Tersis ta Filis lagun guztietatik gazteenai, ta bozik onenak dituztenai, enkargatzen diete ongi-etorria guzien izeneau ematea, zeintzuek au egiten dute kanta berri onetan; nun artzaiaren egokikilde edo *metaforaren* azpian estaltzen diran Jesu-Kristoren bizitza ta gure Fedeko misteriorik nagusienak.

ARTZAI KORUA

Ola, goazen, artzaiak,
Abel-etxera,
Lagun berri bat
Ezagutzera:
Ta ongi-etorri on bat
Ematekotzat,
Guzien partez,
Tersis, zuk ta Filisek
Kanta kanta berri bat.

TERSIS ta FILISEK, biak

Baña kontu zuek ere laguntzeaz,
Estribillo batez, guzien artean.

GUZIAK

Ordu onean.

TERSIS ta FILISEK

1/

Artzai zoragarria!
Ona emen gera,
Ongi-etorri on bat
Zuri ematera:
Ez da artzairik gelditu

Inguru guzian,
Diranak emen datoz,
Bada, elkarren leian.

ERANTZUERA

Erantzun bada, lagunak,
Esan dezun bezela,
Jakiñ dezan etortze onez
Nola gu poztu geran:
Ea bada, kanta laxter.

GUZIAK

Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai.

BIAK

Ea bada, kanta laxter.

GUZIAK

Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai.

Ongi etorri zerala,
Artzai pare gabea,
Gurekiñ bearko dezu
Beti sekularean..

TERSIS ta FILISEK

2/

Artaldeak bakarrik,
Txabolak zai gabe,
Utzirik gatoz, baña
Ardurarik gabe:
Piztietatik dala,
Naiz lapurretatik,
Zuk gordeko dituzu,
Or zautzan lekutik.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

3/

Etsaia alperrik dabil
Leoia bezela,
Inguruka, ustez zerbait
Artuko duela.
Judako leoiaren
Begiratzun batek
Utzi erazoko dizka
Laxter bazter abek.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

4/

Zu agertuarekiñ
Egingo dute iges
Gure etsai guztiak
Emendik bildurrez:
Euren damu gaistoan
Uxatuko dira,
Ta inpernuetaraño
Ondatuko dira.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

5/

Artzaitzat zendozena
Aintziña gengian,
Lenagoko gizonai
Maiz aditurikan:
Ta aiñ maite artaldea
Izango dezula,
Non ta azkenik bizitza
Kastauko zaitzula.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

6/

Ardiak duten gaitza
Kentzeko jakiñik,
Ez dala artzaiaren
Odola lakorik:
Etorri ta egun asko
Pasatu baño len
Asiko zeradela
Ugariro ixurten.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

7/

Amodio andi onek
Parerikan ez du,
Artzai ona zerala
Erraz dezakezu:
Orrek ardiak zaitzen
Ipiñiko zaitu,
Ta orrek aien ondoren

Ekarriko zaitu.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

8/

Bost bider ekustean,
Lagunak utzirik,
Ardiren bat diala
Bide okerretik,
Galdu dediñ bildurrak
Osta antxiturik,
Biurtuko dezu atzera,
Lepoan arturik.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

9/

Ogei ta amairu urte.
Pena andiz beteak,
Emango ditzu, abek
Ondo gordetzeak;
Ta aien kabuan gero
Esker ematea

Izango da gogorki
Bizitza kentzea.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

10/

Orduan kunpli dediñ
Aintziñako itza:
Artzaia jo, ardiak
Banatuko dira.
Baña iru egun barru
Zu piztuko zera,
Ta bilduko dituzu
Elkargana ostera.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

11/

Ala ere Aitagana
Biurtu bearko dezu.
Ta artalde maite ori
Utzi naiko ez dezu;
Baña zure amoreak

Asmatuko bait du
Nola, joanagatik,
Aiekiñ gelditu.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

12/

Mirarietatikan
Mirari andiena
Izango da artarako
Ikusiko dena;
Bada ogiaren antzaz
Ostia batean
Geldituko zerade,
Zure artaldean.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

13/

Emen Zerutik iñoiz
Alde egin bagerik,
Egongo zera ardien
Janari egiñik;

Orrela izango zera
Beti aien aldean,
Arik-eta munduak
Dirauen artean.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

14/

Asko ez balitz bezala
Mirari aiñ andia.
Ipiñiko ere dezu
Ordeko Artzaia,
Zure ardiak ongi
Gobernatu ditzan.
Ta bide onetatik
erabilli ditzan.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

15/

Artzai onen mendean
Arkitze ez diranak
Izan bearko dute

Galduak diranak:
Ta ala, artzai maitea,
Zurekiñ nai degu.
Ta argan zure ordea
Ezagutzen degu.

Erantzun, bada, lagunak...

T. ta F.

16/

Artzai onen mendean
Bizi ta ilko gera,
Joateko Zurekiñ
Aitaren aldera;
Arren lagun zakizgu
Au ala kunplitzen,
Gero goza zaitzagun
Zeruetan. Amen.

Erantzun, bada, lagunak...

Kopla jostalluak

Ezagun du munduak

Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, naibageak,
Ta oraiñ atsegiñ, gusto,
Algara, parreak.

Gorroto, errierta,
Auziak ta gerra,
Gaitzak, gose, gezur ta
Intentzio okerrak
Juanik, ia ez dago
Ezerren bildurrik,
Ta ala dago mundua
Zeru bat egiñik.

Abogadu, eskribau
Eta merioak,
Mediku, barbero ta
Botikarioak,
Ez dira bear; ta argatik
Izango da sarri
Hipokrates gaxoa

Saguen janari.

Ezpatak, lantzak eta
Beste arma guziak
Erositzen dituzte
Errementariak;
Ta alperrikan ez dediñ
Galdu burni ura,
Enpleatzera diaz
Gure probetxura.

Atxur, burdiñara ta
Golde biurturik,
Nekazari langiñak
Ongi giaturik,
Emango digu lurrak
Garia ta artoa,
Gaztaña, sagardoa
Ta ardoa naikoa.

Garia ta artoa
Merke ta ugariro,
Gaztaña ta sagarra
Berriz urte-oro;

Ta ardoak, galdurikan
Lengo malizia,
Ez gaitu moskortuko.
Edan zia-zia.

Ez da onezkero esango
Gezurrik batere,
Egia esango dute
Dendariak ere:
Juan da emendik tranpa
Ta pede gaistoa,
Ia ur bage saltzen da
Tabernan ardoa.

Basa arteko piztiak
Malso-malso egiñik,
Ez dute ya alkar jaten,
Ta aiñ gitxi gizonik.
Bat egiñik guziak
Alkarren artean
Bizi dira etsai gabe,
Kontentuz, bakean.

Otsoa ta ardia

Zelai zabalean
Sarri ekusten dira
Biak jolasean;
Alberdanian txita
Aizariarekiñ.
Portugesak laztanga
Gastelaubarekiñ.

Auxen bai dala egiaz
Denbora urrezkoa,
Ta ez len koplari zarrak
Erausitakoa;
Oraiñ aien amesak
Egia sorturik,
Ekusten ari zera
Pozez zoraturik.

Baña kanta berri au
Geitxo luzatu da,
Nere eztarri tristea
Ia urratu da;
Naiago det ixildu
Katarratu baño;
Agur, nere jendeak,

Urrengo urteraño.